

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Sé que
mi padre decía

Willy Uribe

EL ANDÉN

166 orrialde

17,50 euro

Bilbon kokatutako
nobela beltza

1965ean Bizkaiko hiriburuan sortutako idazlea du Willy Uribe, hainbat urtetan Ramiro Pinillaren literatur tailerrean buru-belarri aritutakoa. Nanga izenburuko nobelarekin 2007ko Euskadi Literatur Sarian finalista gertatu zen. *Sé que mi padre decía* bere bigarren eleberria du, Bilbon eta inguruetan kokatutako nobela beltz bezain gordina. Ama leihotik botata hil zion aita-ekin bitzako haurtzarotik ihesi, legiora joan zen gaztea. Hangoa amaituta, Mexikon eta Andaluzian bilatu zuen bizimodua. Halako batean, bere emaztea izandakoaren deiari jaramon eginenez, Bilbora itzultzea erabaki zuen, haurtzaroko lagun bati xantaia egiteko asmoz. Baina afera ez zitzaion, inondik ere, berak uste bezala ateratzen.

nez, Bilbora itzultzea erabaki zuen, haurtzaroko lagun bati xantaia egiteko asmoz. Baina afera ez zitzaion, inondik ere, berak uste bezala ateratzen.

Humboldt. Hizkuntza eta
pentsamendua

Joxe Azurmendi

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA,
EIBARKO UDALA

426 orrialde / 26,20 euro

Azurmendik herrien esentziaz
osatutako trilogiaren lehena

Aurrena *Espainiaren arima* izeneko lana plazaratu bazen ere, 2005eko Juan San Martín ikerketa beka eskuratu zuen Humboldt. *Hizkuntza eta pentsamendua* lana da Joxe Azurmendik herrien esentziaz idatzitako trilogiako lehena. *Volksgeist*-Herri Gogoia *Ilustraziotik nazismora* eta *Espainiaren arima* saikeraren aitzindaria da lan hau. Esan ohi da euskal abertzaletasunaren nazio-kontzeptua tradizio alemaniarrekoa dela —erromantikoa, irrazionala— eta tradizio frantsesaren —demokratikoa— kontrakoa dela. Azurmendik ordea, Herri Gogoaren ideia Alemaniaren adina ilustrazio frantsesean aurki daitekeela dio. Trilogiak hizkuntza politika jakobino eta nazionalismo espainiar “liberaletik” nazional-sozialismo alemaniarreko ideien nondik norakoa aztertzen du.

Pio Barojaren
“ajeak” agerian

Asko idatzi da azken garaiotan Pio Baroja eta haren lanen gainean, baina gutxi busti dira Victor Moreno bezainbeste. Pamiela argitaletxearekin plazaratutako *¿Qué hacemos con Baroja? Reflexiones sobre la “coherencia” barojiana* lanean dioenez, Pio Baroja zalan-tzarik gabe idazle handi eta gogoangarria badugu ere, ez zen inondik ere askok ikusi nahi duten bezain liberala, anarkista edota iraultzailea izan. Alderantziz, bere garaiko Espainian zein Europan egon zitezkeen burges atzerakoien pareko izan genuen. Elizaren kontrakoa zen, bai, baina antiklerikala bezain juduen kontrakoa ere agertu zen. Are gehiago, bozkatzeko unibertsalaren aurka idatzi zuen, demokrazia eta parlamentarismoaren aurka idatzi zuen legeaz. Eta Hitlerren jeinutasuna aldarrikatu zuen.

¿Qué hacemos
con Baroja?

Victor Moreno


PAMIELA

206 orrialde

18,50 euro

Testuliburuetako
edukiak hizpide

Karlos Santiago Sebastianek zuzentzen du *Tantak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza aldizkaria. Azken zenbakian plazaratu diren lanen artean Begoña Bilbaok, Gurutze Ezkurdiak eta Karmele Perezek testuliburuetako edukiaren eta itxuraren garapenaz egindako azterketa dago, Anaya, Edebé eta Santillana argitaletxeak kontuan hartuta. Bestalde, II. Errepublikak Bilboko lehen hezkuntzaren birmoldaketan izan zuen eraginaz hitz egin du M^a Olga Macías Muñozek. Justo Bereziartuak berriz, *Hizkuntzen Portfolioa ataririk ikasgelara* lana eskaini du, eta psikopedagogaren profil profesionalari buruz idatzi dute Francisca Arbek, Ana Aierbek, Isabel Bartauk, Gloria Díazek, Juan Etxeberriak, Javier Galarretak, Concepción Medranok eta Arantza Uribe Etxeberriak.




Tantak

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA

166 orrialde

10 euro



Irakurri

Batzen artean

MEETOK

188 orrialde

16 euro

Hamaika idazki literario irakurtzeari buruz

Meettok argitaletxeak plazaratu duen liburu honetarako irakurketaren gaiak idazteko proposatu zitzairen Uxue Apaolaza, Pako Aristi, Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Angel Erro, Edorta Jimenez, Felipe Juaristi, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Eider Rodriguez eta Iban Zalduari. Bakoitzak bere erara erantzun dio eskaerari: gogoeta modura batzuk, olerkien bitartez Errok... Guztiak ahalegindu dira beraientzat irakurketak dituen onurak azpimarratzen. Bidaia bat egitearekin parekatzen duenik bada, eta liburu bat batzuei bai eta besteei ez gustatzearen arrazoia maiteminarekin antzekoa dela dioen testu bat ere aurkituko du orriotara hurbiltzen denak. I

tzearren arrazoia maiteminarekin antzekoa dela dioen testu bat ere aurkituko du orriotara hurbiltzen denak. I

Neska-mutikoez heriotza zer den ulertzeko kontakizuna

Alan Durantek sortu, Debi Gliorik marraztu eta Joxan Ormazabalak euskaratu du *Betiko* kontakizuna. Lagun baten heriotza du abiapuntu. Asko maite dugun horren betiko galerak barruan uzten digun etsipena eta mina, haren beharra nabaritzea. Baina halako batean beste lagun baten batek goibelaldi hartatik atera behar dugula gogoratzen digu. Saiatuko da gu animatzen. Alferrik, hasieran. Baina poliki-poliki bada ere, lortuko du joandakoa gure bihotzean, oroi-menean eta irribarrean egotea. I

Betiko

A. Durant, Debi Gliori

TTARTALO

28 orrialde / 15,50 euro



JOKIN OREGI

«Nire helburua zinez zaila da, ia ezinezkoa: ikusleek barre egitea»

Woody Allenen eskolatik edaten omen duzu zure pertsonaiaren nortasun destotuetak eragiten dituen egoera kontraesankor eta umoretsuak sortzeko. Baina, zein da zure lan honen oinarria?

Ni naiz Hector, ni bakarrik! aldarrikatzen du neronek idatzitako azken antzerki testuko protagonistak. Badu nahikoa arrazoi garrasi egiteko, aldamenen dituen bere *Ni* biek ez baitute bakean uzten. Hor ari dira nor baino nor, nor Hecorrago, nor bakanago. Azkenean ordea, ederto asko ulertuko du hiruen beharra duela aurrera egingo badu, hiru "hankon" premia duela zutik eutsiko badio.

Nolanahi ere, zein da zure lan honen helburua?

Hausnarketa eta ondorio sakonetara eramanez gaitzake obra honen mamiak, baina nik garbi utzi nahi dut nire asmoa harago doala, ez naizela konformatzen "pisuzko" zerbait egitearekin, exijentzia maila puntu gorenean kokatu dut honako honetan, lortu nahi nuen helburua zinez zaila, ia ezinezkoa delako: ikusleek barre egitea.

Harkaitz Canok liburu honen aurkezpenean azaltzen dionari kasu eginez, nortasun anitzek osatzen duten gure garun barrunbeetako akelarre gordin, zoro, gozagarrira gonbidatu nahi gaituzu irakurle-ikusleak zure antzezlan honekin. Hala al da?

"Komedia erromantiko hiperbolikoa" azpigitulupean aurkeztu dut nire azken lan hau. Zorionez, oholtza gainean ikusteko aukera izango dugu, hori baita edozein antzerki testuren xedea. Azaroan Santurtziko Serantes Antzerki Jaialdian estreinatuko da... Hector denak ados jartzen badira, jakina!



egileari galdezka

Geure barruan ditugun *ni* singular anitzak

Ni naiz Hector, ni bakarrik! aldarrikatzen duen pertsonaia protagonista duen lana plazaratu arte Jokin Oregik

(Soraluze, 1970) makina bat urrats eman ditu antzerki munduan Basauriko Antzerki Eskolan bost urteko antzerki ikasketak burutu zituenetik. Bilboko Maskarada taldeko partaide izan zen, Tentazioa Produzioak, Campingags, Gorakada, Tarteana eta beste antzerki taldeetan aritu da. Irabazitako sariak ere ez ditu urri izan: besteak beste, 2004ko Xixongo Feten Haurrentzako Nazioarteko Jaialdian Zuzendari Onenaren saria jaso zuen, eta handik bi urtera, Testurik Onenaren saria jaso zuen *Robin eta Hood* lanagatik. *Ni naiz Hector, ni bakarrik!* izenburua duen lanean, guztiok barrenean gordezten ditugun aldarte ezberdinetan jartzen du bereziki arreta. Harkaitz Canok liburuaren aurkez-



Ni naiz Hector, ni bakarrik!

Jokin Oregi

ARTEZBLAI

104 orrialde

penean esandakoaren arabera, gudan nahiz gugandik kanpo, geure baitako armairuetan eta lagun armairuetan bizi diren beste horiek dira Jokin Oregik antzezlan honetan aintzat hartu dituenak. Gudan dagoen beste gara, eta gudan dagoen beste horrek, batzuetan ausartagoak eta sortzaileagoak egiten gaitu, besteetan koldarragoak, zikoitzagoak egiten gaituen bezala. ■